

TITULARRAK	ADIERAZLEAK	Azken datua	Δ Urte artekoa (%)	Azken datuaren data	
			*aurreko aldia		
<ul style="list-style-type: none"><li>Guztira, 21.963 langabe erregistratu dira martxoan. Lehenengo hiruhilekoko BAIren arabera, Bilboko langabezia-tasa % 10,29koa da.</li><li>Saltoki handiei eta elikagaien kateei dagokienez, martxoko salmentek urte arteko -% 3,2ko beherakada nominala izan dute.</li><li>Bilboko jarduera turistikoak gora egin du martxoan, urte arteko terminoetan, bai ostatu-gauean (% 7,7), bai bidaiari-kopuruan (% 3,1).</li><li>231 merkataritza-sozietate berri erregistratu dira Bilbon, eta horrek 2023ko lehenengo hiruhilekoan baino % 1,3 gehiago izatea eragin du. Desegiteek % 30,1 egin dute gora.</li><li>Bilboko aireportuak martxoan 507.560 bidaiari erregistratu ditu, duela urtebete baino 76.020 gehiago.</li><li>Bilboko Portuak urte arteko % 10,8ko gorakada izan du.</li></ul>	<strong>Lan-merkatua</strong>				
	Afiliatuak (kop.)	191.703	-0,3*	Mar.	
	Erregistratutako langabeak (kop.)	21.963	1,5*	Mar.	
	Langabezia-tasa (BAI)	10,29	2,24p.p.*	2024ko 1. HH	
	Erregistratutako kontratuak	11.033	1,6	Mar.	
	<strong>Merkataritza</strong>				
	Saltoki handiak eta elikagaien kateak: salmenta-indizea (2015. urtea = 100eko oinarria)	109,9	-3,2	Mar.	
<strong>Turismoa</strong>					
Bidaiarien sarrera (kop.)	85.866	3,1	Mar.		
Ostatu-gauak (kop.)	165.261	7,7	Mar.		
<strong>Ekonomia eta enpresa</strong>					
Sortutako merkataritza-sozietateak	231	1,3	2024ko 1. HH		
Desegindako merkataritza-sozietateak	134	30,1	2024ko 1. HH		
<strong>Garraioa</strong>					
Bidaiarien aireko garraioa (kop.)	507.560	17,6	Mar.		
Salgaien itsas garraioa (milioi tona)	3,2	10,8	Mar.		

## DATU BAT

**% 10,24**

Langabezia-tasa BAI

## LAN-MERKATUA

### Erregistratutako langabezia

Martxoan 323 langabe gehiago erregistratu ziren, hau da, hil artean % 1,5 gehiago, eta 21.963 langabe daude udalerrian.

Langabezia-tasa hazi egin da gizonen eta emakumeen artean, % 2,1 eta % 1,0, hurrenez hurren. Datu absolutuetan, hilabetearen amaieran 202 gizon langabe eta 121 emakume langabe gehiago egon dira.

Langabezia kontuan hartutako adin-talde guztietan igo da. 16 eta 24 urtekoen artean, % 4,3 eta 82 langabe gehiago; 25 eta 44 urtekoen artean, % 1,3 eta 97 gehiago eta 45 urte edo gehiago dituztenen artean, % 1,2 eta 144 langabe gehiago.

Sektore guztietan hazi da langabezia: Industrian (% 0,1 eta 2 langabe gehiago), Lehen Sektorean (% 1,5 eta 6 langabe gehiago), Eraikuntzan (% 2,6 eta 36 langabe gehiago) eta Zerbitzuetan (% 1,4 eta 210 langabe gehiago). Lehen enpleguaren bila ari direnen artean % 2,2 igo da langabezia (69 langabe gehiago).

**Benchmarkina.** Espainiako bost hiriburu handienetan (G-5) erregistratutako langabezia-tasa -% 0,1 murriztu da aurreko hilaren aldean, nahiz eta hiriburuen artean joera bera ez egon. Hazkunderik handiena Madrilen erregistratu da (% 0,5), eta jaitsierarik nabarmenena, berriz, Sevillan (-% 1,1).

Euskal hiriburuen taldean (G-3) langabeziak % 0,1 egin du gora. Donostian (% 0,5) eta Gasteizen (% 0,3) hazi egin da. Iruñean baino ez da murriztu (-% 0,7).

Langabeziak gora egin du EAEn (% 0,8). Lurraldeka, Araban baino ez da jaitsi (-% 0,2). Bizkaiari gora egin du % 0,7 eta Gipuzkoan % 1,8.

### Afiliatuak

Martxoaren amaieran, Bilboko enpresetan 191.703 afiliatu zeuden, hau da, otsailean baino 626 enplegu gutxiago, -% 0,3 gutxiago, alegia.

Hiletik hilera eta araubideak kontuan hartuta, araubide orokorrak soilik egin du behera, 771 enplegu murriztu baititu. Langile autonomoen araubide berezian 90 afiliatu gehiago daude eta etxeko langileen araubidean 31 gehiago. Araubide berezietan (nekazaritza eta itsasoa) 24 afiliatu gehiago daude.

Sektoreka, Zerbitzuek 457 afiliatu murriztu dituzte (-% 0,3), eta Eraikuntzak 249 (-% 2,6). Hilabete honetan enpleguak gora egin du Industrian, 66 afiliatu gehiagorekin, eta Lehen sektorean, 14 afiliatu gehiagorekin (% 0,8 eta % 6,0, hurrenez hurren).

#### Erregistratutako langabeak

Hilabete arteko  $\Delta$

<b>Martxoa</b>	<b>21.963 pertsona</b>
	<b>% 1,5 ▲</b>
Emakumeak	% 1,0 ▲
Gizonak	% 2,1 ▲

#### Benchmarkina

Hilabete arteko  $\Delta$

<b>Bilbo</b>	<b>% 1,5 ▲</b>
<b>G-5</b>	<b>% 0,1 ▼</b>
<b>G-3</b>	<b>% 0,1 ▲</b>

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza  
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

#### Populazio afiliatua, araubideen arabera

Hilabete arteko  $\Delta$

<b>Martxoa</b>	<b>191.703 pertsona</b>
	<b>% 0,3 ▼</b>
Araubide orokorra	% 0,5 ▼
Autonomoak	% 0,4 ▲
Etxeko Sistema Berezia	% 0,5 ▲
Beste batzuk	% 3,4 ▲

#### Afiliatuak, jarduera-sektoreen arabera

Hilabete arteko  $\Delta$

Zerbitzuak	% 0,3 ▼
Eraikuntza	% 2,6 ▼
Industria	% 0,8 ▲
Lehen sektorea	% 6,0 ▲

Zerbitzuetan, eta datu absolutuetan, nabarmentzekoak dira Administrazio-jardueretan, Hezkuntzan, Informazio eta Komunikazioetan eta Osasunean izandako jaitsierak (-699, -328, -72 eta -62 gutxiago, hurrenez hurren). Igoerak erregistratu dira Gizarte-zerbitzuetan, Ostalaritzan, Ostatuan eta Finantzak eta aseguetan (255, 114, 77 eta 71 gehiago, hurrenez hurren).

**Urte artean** enpleguak % 3,0ko gorakada izan du, hau da, 5.554 afiliatu gehiago.

Afiliazioak gora egin du araubide orokorrean, etxeokan eta itsasoko zein nekazaritzako araubide berezietan. Autonomoen Araubide Berezia behera egin du (-% 0,5), 113 autonomo galdu ditu eta 28 hilabete dira jarraian behera egiten.

Sektoreka, Zerbitzuetan 5.289 afiliatu gehiago daude (% 3,1) eta Industrian 318 gehiago (% 3,7); Eraikuntzan, aldiz, 31 gutxiago daude (-% 0,3) eta Lehen sektorean 22 gutxiago (-% 8,1).

Hezkuntzan, Ostalaritzan, Administrazio-jardueretan, Gizarte zerbitzuetan eta Informazioa eta komunikazioen adarretan hazkunde absolutuak nabarmentzen dira 893, 875, 696, 631 eta 608 afiliatu gehiago, hurrenez hurren).

**Benchmarkina.** Espainiako bost hiriburu nagusien multzoan (G-5) afiliazioak % 0,7ko gorakada islatu du aurreko hilaren aldean. Hiriburu guztietan egin du gora afiliazioak. Igoerarik nabarmenena Sevillan izan da (% 1,0) eta Zaragozan txikiena (% 0,5).

G-3ko hiriburuetan, afiliatuen kopurua, batera hartuta, % 0,3 igo da. Donostian % 0,5 igo da, Iruñean % 0,2 eta Gasteizen bere horretan mantendu da.

EAEn, oro har, afiliatuak % 0,3 igo dira hilabete artean. Afiliazioak gora egin du hiru lurraldeetan: % 0,5 Gipuzkoan, % 0,3 Bizkaian eta % 0,2 Araban.

## Kontratuak

Martxoan 11.033 kontratu formalizatu ziren Bilboko enpresetan, hau da, aurreko urteko hilabete berean baino % 1,6 eta 173 kontratu gehiago. Urtetik urtera murriztu egin dira emakumeei egindako kontratuak (184 gutxiago) eta gora egin dute gizonei egindakoak (357 gehiago).

Adin-tarteen arabera, gazteenei egindako kontratuak soilik igo dira, % 21,9 gehiago, hau da, 461 kontratu. Aitzitik, 25 eta 44 urte artekoen taldean egindako kontratuak -% 1,7 murriztu dira (96 gutxiago) eta 45 urtetik gorako artean -% 5,9 (192 gutxiago). Erregistratutako kontratuen % 49,1 dagokio 25-44 urteko adin-tarteari (5.420 kontratu), % 27,6 berriz, 45 urtetik gorakoei (3.050) eta gainerako % 23,2, ordea, gazteenei (2.563).

### Benchmarkina

Hilabete arteko Δ

<b>Bilbo</b>	% 0,3 ▼
<b>G-5</b>	% 0,7 ▲
<b>G-3</b>	% 0,3 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza  
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

### Erregistratutako kontratuak

Urte artekoa Δ

<b>Martxoa</b>	<b>11.033 pertsona</b>
	% 1,6 ▲
Emakumeak	% 3,0 ▼
Gizonak	% 7,5 ▲
Lehen sektorea	% 6,2 ▼
Industria	% 13,5 ▼
Eraikuntza	% 34,5 ▼
Zerbitzuak	% 3,8 ▲
Kontratutako pertsonak	% 1,7 ▼

Era berean, kontratuek behera egin dute Eraikuntzan (-% 34,5, hau da, 144 gutxiago), Industrian (-% 13,5, hau da, 63 gutxiago) eta Lehen sektorean (-% 6,2, hau da, 1 gutxiago). Zerbitzuetan gora egin dute (+% 3,8, hau da, 381 gehiago).

Aldi baterako lan-kontratuak kontratu guztien % 76,5 izan dira martxoan. 7.759 pertsona kontratatu dira eta % 53,6 emakumeak dira. Kontratu-txandakatzearen indizea hau da: pertsona bakoitzeko 1,42 kontratu.

## Biztanleria Aktiboaren Inkesta (BAI)

2024ko lehen hiruhilekoko BAI kalkulatzeko, kontuan hartu dira populazio-oinarria aldatzearen ondoriozko erroldako datu berriak.

BAIren populazio-oinarriaren aldaketa honetan datza: 2021eko Populazioaren eta Etxebizitzen Erroldatik eratorritako populazio eta etxebizitzien serieak eguneratu eta jasotzean, 2011ko erroldan oinarrituta zeuden egungoen orde.

INEk, gainera, 2021etik 2023ra arteko hiruhilekoen atzerabegirako serieen xehetasunak ematen ditu; horri esker egin daiteke hiruhilekoen arteko alderaketa, hain zuzen ere, hizpide dugun alertaren oinarri dena.

Lehenengo hiruhilekoaren amaieran, populazio-oinarri berria aplikatuta, populazio aktiboaren beherakada handia sumatu da. Funtsean emakumeena.

Gainera, okupazioa murriztu da (-% 9,3), bai emakumeen bai gizonen artean. Emakumeek 8.900 enplegu galdu dituzte, eta gizonek 6.000 landun galdu dituzte, iazko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta.

Lehen hiruhilekoaren enplegu-tasa % 50,07koa izan da.

Okupazioaren galera sektore guztietan islatu da: Zerbitzuetan 13.700 enplegu galdu dira, Eraikuntzan 800 eta Industrian 400 landun gutxiago daude.

Langabeek gora egin dute (2.700 pertsona gehiago); hau da, aurreko hiruhilekoko 14,0 milatik 16,7 milara igaro dira urteko lehen hiruhilekoan. Gizonen langabezia soilik igo da.

Langabezia-tasak gora egin du eta % 10,29koa da. Soilik emakumeen langabeziak egin du behera (-0,93 p.p.).

### Biztanleria Aktiboaren Inkesta (BAI) – I. HH

Hilabete artekoa Δ

<b>Langabezia-tasa</b>	% 10,29 2,24 pp ▲
Emakumeak	0,93 pp ▼
Gizonak	5,27 pp ▲
<b>Biztanleria aktiboa</b>	% 7,1 ▼
<b>Landunak</b>	% 9,3 ▼
<b>Langabeak</b>	% 19,3 ▲

## MERKATARITZA

### Salmentak saltoki handietan eta elikagaien kateetan

Bizkaiko saltoki handietako eta elikadura-kateetako salmentek, martxoan -% 3,2 egin dute behera urte batetik bestera, lan-egutegi homogeenari dagokionez. Aurreko hilabetearekin alderatuta, -% 3,8 murriztu dira salmentak.

Elikagaien salmentek -% 1,1 egin dute behera 2023ko martxoarekin alderatuta, eta gainerako produktuak maila berean mantendu dira (-% 6,6) aldi berean.

Bizkaiko saltoki handietako landunen kopuruak % 1,6 egin du gora urte batetik bestera, eta hogeitaz jarraian gora egin du.

Lurraldeka, saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentek gora egin dute Gipuzkoan (% 2,5) eta Araban (% 1,6). EAEn, orokorrean, -% 0,9 egin dute behera.

#### Saltoki handiak Bizkaia

Urte artekoa  $\Delta$

<b>Martxo</b>	<b>109,9</b>
<b>Salmenta-indizea</b>	<b>% 3,2 ▼</b>
- Elikadura	% 1,1 ▼
- Gainerako produktuak	% 6,6 ▼
<b>Landunak</b>	<b>% 1,6 ▲</b>

## TURISMOA

Bilboko hotel-establezimenduetan 165.261 ostatu-gau erregistratu dira martxoan, hau da, % 7,7ko hazkundera egon da urtetik urtera (11.788 ostatu-gau gehiago).

Bidaiarien sarrerak % 3,1 egin du gora, batez ere atzerriko bidaiarien artean, % 20,0ko hazkundera izan baitute urtetik urtera. Estatuko bidaiaren beherakada -% 7,0koa da, eta hilabete honetan hiriko hotel-establezimenduetan izandako sarreren % 56,2 dira.

Hiriko hoteletan ostatu hartutako bidaiariei dagokienez, Madrilgo Erkidegokoak izan dira ugariak (% 24,9), gero Kataluniakoak (% 14,5), EAekoak (% 13,5) eta Andaluziakoak (% 6,9). Atzerriko turismoari dagokionez, jatorri hauetatik datozenak izan dira ugariak: Alemania (% 11,4), Erresuma Batua (% 11,4), Frantzia (% 11,2), AEBak (% 8,1) eta Herbehereak (% 6,2).

Batez besteko egonaldiak gora egin du martxoan: bidaiari bakoitzeko 1,92 ostatu-gau.

Logela eskuragarriko diru-sarrerak 73,5 eurokoak dira, % 27,7 gehiago urte artean

#### Ostatu-gauak

Urte artekoa  $\Delta$

<b>Martxo</b>	<b>165.261 ostatu-gau</b>
	<b>% 7,7 ▲</b>
Hiru izar eta gehiagoko hotelak	% 10,3 ▲
Gainerako hotelak eta ostatuak	% 0,6 ▼

#### Bidaiarien sarrera

Urte artekoa  $\Delta$

<b>Martxo</b>	<b>85.866 sarrera</b>
	<b>% 3,1 ▲</b>
Nazionalak	% 7,0 ▼
Atzeritarrak	% 20,0 ▲

#### Batez besteko egonaldia

Urte artekoa  $\Delta$

<b>Martxo</b>	<b>1,92 ostatu-gau/bidaiari</b>
	<b>% 4,3 ▲</b>

#### Sektorearen errentagarritasun-adierazleak

Urte artekoa  $\Delta$

Logela bakoitzeko eguneko batez besteko tarifa (€)	% 13,6 ▲
Diru-sarrerak libre dagoen logelako (€)	% 27,7 ▲

**Aste Santua<sup>(1)</sup> Bilbon:** 13.485 sarrera (-% 13,5) eta 29.813 ostatu-gau (-% 11,8) erregistratu dira Aste Santuan zehar.

Turismoaren % 53,2 estatukoa da eta batez besteko egonaldia 2,21 ostatu-gau dira bidaiari bakoitzeko; hau da, gora egin du 2023ko martxoarekin alderatuta (2,17).

Eskainitako plazen % 77,8 bete dira.

<sup>(1)</sup>: Aste Santua: ostegunetik igandera (4 gau)

**Benchmarkina.** Euskal hiriburuen multzoan (G-3), hoteletako ostatu-gauen bilakaera positiboa izan da, urtetik urtera % 25,9 hazi da eta. Gora egin dute Gasteizen (% 22,3), Donostian (% 32,2) eta Iruñean (% 12,7). EAE osoan hazkundera % 19,5ekoa izan da aurreko urteko martxoaren aldean.

Bestalde, estatuko hiriburu nagusietan (G-5) ostatu-gauek % 8,0ko gorakada izan dute. Multzo horretako hiriburu guztietan areagotu da ostatu-gauen kopurua. Valentzian egon da gorakadarik altuena (% 17,8).

### Benchmarkina

Urte artekoa  $\Delta$

<b>Bilbo</b>	% 7,7	▲
<b>G-5</b>	% 8,0	▲
<b>G-3</b>	% 25,9	▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza  
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

## ENPRESAK

### Merkataritza-sozietateak

2024ko lehenengo hiruhilekoan Bilbon 231 merkataritza-sozietate berri eratu dira. Horrek % 1,3ko gorakada dakar, aurreko urteko aldi beraren aldean (3 sozietate gehiago).

Sektoreka, Zerbitzuetan 188 sozietate sortu dira, hau da, aurreko urtean baino 10 gehiago, Eraikuntzan 20 (iazko kopuru bera) eta Industrian 23 (7 gutxiago).

Lehenengo hiruhilekoan 134 sozietate desegin dira, aurreko urteko hiruhileko berean baino 31 gehiago. % 77 Zerbitzuen sektorekoak dira, % 18 Eraikuntzakoak eta % 5 Industriakoak.

### Merkataritza-sozietateak

Urte artekoa  $\Delta$

<b>I. hiruhilekoa</b>		
<b>Sortutakoak</b>	% 1,3	▲
<b>Deseginda</b>	% 30,1	▲

## GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA

### Aireportuko bidaiariak

Bilboko aireportuak 507.560 bidaiari izan ditu martxoan (iritsierak eta irteerak kontuan hartuta), hau da, aurreko urteko hilabete berean baino % 17,6 eta 76.020 bidaiari gehiago. Emaizta horiekin, gainera, martxoko daturik onena lortu du, jarduera hasi zuenetik.

### Aireko garraioa

Urte artekoa  $\Delta$

<b>Martxoan</b>	507.560 bidaiari	
	% 17,6	▲
<b>Nazionalak</b>	% 10,2	▲
<b>Nazioartekoak</b>	% 31,3	▲
<b>Salgaiak (kg)</b>	% 23,0	▲
<b>Hegaldiak</b>	% 6,5	▲

Bidaiarien kopuruak gora egin du hegaldi nazionaletan zein nazioartekoetan. Lehenengoetan 28.848 bidaiari gehiago izan dira urtetik urtera (% 10,2), eta bigarrenen artean 46.395 gehiago (% 31,3).

Hilean zehar egindako hegaldiak, iritsieren eta irteeren artean, 3.915 izan dira (% 6,5), eta garraiatutako merkantziak igo dira (% 23).

**Benchmarkina.** Espainiako bost hiri nagusiei dagokienez (G-5), urtetik urtera % 12,8ko igoera kontabilizatu da. Taldeko aireportu guztietan bidaiarien kopuruak gora egin du. Sevillan izan da hazkunderik nabarmenena (% 18,3) eta Zaragozan baxuena (% 1,0).

G-3 multzoan, bidaiarien trafikoari begira, % 5,7 handitu da. Iruñean % 30,4 egin du gora, eta Donostian % 0,7. Gasteizen -% 5,2 jaitsi da.

### Benchmarkina

Urte artekoa  $\Delta$

<b>Bilbo</b>	% 17,6 $\blacktriangle$
<b>G-5</b>	% 12,8 $\blacktriangle$
<b>G-3</b>	% 5,7 $\blacktriangle$

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza  
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

## Portuko trafikoa

Bilboko Portuak 3,2 milioi tonako trafikoa izan du martxoan, hau da, % 10,8 gehiago aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuta.

Solteko salgai likidoen trafikoa (petrolioa eta gasa, funtsean) portuan martxoan kudeatutako salgaien % 66,1 izan da, eta urte arteko % 17,3ko igoera izan du. Solteko gaien trafikoak -% 22,8 egin du behera (zerealak, soja eta ikatza, besteak beste), eta salgai orokorrenak gora egin du % 12,0.

Bidaiarien itsas garraioan ez da jarduerarik izan hilabete honetan.

Halaber, martxoan ez da itsas-bidaietako jarduerarik erregistratu.

Metatutako datuari dagokionez, urtarriletik martxora, 8,5 milioi tona lortu dira portuko trafikoa, aurreko urteko aldi berean baino % 9,5 gehiago.

### Itsas garraioa Martxoan

Urte artekoa  $\Delta$

<b>Portuko trafikoa</b>	3,2 milioi tona % 10,8 $\blacktriangle$
<b>Bidaiariak garraiatzea</b>	0 bidaiari
<b>Itsas bidaiariak (kop.)</b>	0 itsas bidaiari

## ADIERAZLEEN TAULA

	Azken data	Urtetik urterako aldakuntza (%) *aurreko aldia	Azken datuaren data
<b>Lan-merkatua</b>			
Erregistratutako langabeak (kop.)	21.963	1,5*	2024ko mar.
Afiliatuak (kop.)**	191.703	-0,3*	2024ko mar.
Erregistratutako kontratuak (kop.)**	11.033	1,6	2024ko mar.
Biztanleria aktiboa (milakotan)	162,1	-7,1*	2024ko I. HH
Biztanleria landuna (milakotan)	145,4	-9,3*	2024ko I. HH
Langabeak (milakotan)	16,7	19,3*	2024ko I. HH
BAlko langabezia-tasa (%)	10,29	2,24p.p.*	2024ko I. HH
<b>Merkataritza</b>			
Kontsumoko prezioen indizea (KPI)***	114,8	0,6*	2024ko mar.
Afiliatuak**	18.871	-1,2	2024ko mar.
Txikizkako merkataritzako salmentak (indizea)***	120,4	0,2	2023ko IV. HH
Saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentak	109,9	-3,2	2024ko mar.
<b>Turismoa</b>			
Bidaiarien sarrera	85.866	3,1	2024ko mar.
Ostatu-gauak	165.261	7,7	2024ko mar.
Batez besteko egonaldia (ostatu-gauak/bidaiaria)	1,92	4,3	2024ko mar.
Hoteletako okupazio-maila (%)	56,6	6,9 p.p.	2024ko mar.
Diru-sarrerak libre dagoen logelako (€)	73,5	27,7	2024ko mar.
<b>Ekonomia eta enpresa</b>			
Bizkaiko BPGd	117,6	0,4*	2023ko IV. HH
Industria-ekoizpena (indizea)**	112,9	-0,2	ots 2024
Merkataritza-sozietate berriak	231	1,3	2024ko I. HH
Zerbitzuetako salmentak (indizea)***	121,7	2,6	2023ko IV. HH
Etxebizitza berriaren batez besteko prezioa (m <sup>2</sup> )	3.991,8	-18,7	2023ko IV. HH
Etxebizitza erabiliaren batez besteko prezioa (m <sup>2</sup> )	2.947,7	4,7	2023ko IV. HH
<b>Garraioa</b>			
Bidaiarien aire bidezko garraioa	507.560	17,6	2024ko mar.
Hegaldiak	3.915	6,5	2024ko mar.
Salgaien itsas garraioa (milioi tonatan)	3,2	10,8	2024ko mar.


\* Aldakuntza-tasa aurreko epearen aldean \*\* Bilboko enpresetan. \*\*\* Bizkaiari dagokiona.

Iturriak: Geuk egina, Eustaten, ElNren, Inklusio, Gizarte Segurantza eta Migrazio Ministerioaren, Eusko Jaurlaritzaren, Lanbideren, EEZPren, Merkataritza Erregistroaren, AENAREN, Estatuko Portuen, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko Garraio Partzuegoaren datuetan oinarrituta.




## GRAFIKOAK


### Biztanleria aktiboari buruzko inkesta




### Salmentak saltoki handietan eta elikagaien kateetan




### Merkataritza-sozietate berriak



### Aireportuko bidaiariak



### Hotel-gauak



### Portuko garraioa

